

Hernanik Kronika

TOKIKOM 2013ko uztailaren 17a, asteazkena ::: 4.427 zk. ::: www.kronika.net

KARMEN JAIK KAXKOAN

Giro eta zapore goxoekin bukatu dituzte Karmenak aurten ere

Momenturik hunkigarrienak eguerdian izan ziren, omenaldiaren garaian.


EURI tantek amenazua jo zuten arren, apenas inor ikaratu zen atzo Hernaniko Kaxkoan, eta giro ederrean joan zen eguna, zapore oraindik ederragoekin bukatu zena, sardina jatea baitzuten errematerako, urteroko gisara.

Alkate berria indarrean

Eguerdian izan zen txupinazoa eta omenaldia, eta hortxe bizitu zituzten momentu hunkigarrienak. Maria Dolores Amonarraizek jaso zuen Alkate makila, Juani Lukasen eskutik. «Ondo zaindu ezazu herria e! Zergarik ez igo behintzat!» esan zion Lukasek, umore ederrean. Amonarraizek, 1926an jaioa izanagatik sasoiari dagoe la erakutsi zuen «gora Hernani!» oihukatuz. Joanjo Uriak, aurkezpen lanak beste behin bikain egin zituenak, hala kantatu zion bertsoan: «*zuk pentatu guztia ondo joango dela, alkatetzan eroso egon zaitezke, etxeko eskailerrak igotzen bezela*».

Maite Iradiren omenaldian hunkituta egon zen jendea, batez ere, Regina, bere ama oroitututenean. Tomas Garmendiak kantatu zuen Reginararen omenezko bertsoa, Uriak egina. Iradik gogoan izan zituen bere aurrekoak, eta Karmen jaien bultzatzaileak.

Sardina jatearekin bukatu zen eguna, baina aurrez, sari-banaketa izan zen. Txapel-dunak: eskoban, Ixiar eta Ina; musean, Oxan eta Maria Luisa; tokan, Joxe Mari Aldasoro (hirugarren urtez); igelean, Xatur Fernandez; botean, Amaia Ubide; tortilarik onena, Maitere Ollorena; eta balkoirik ederrenaren saria, Rosa Aranbururentzat. II



Sardina jatearekin bukatu zuten atzoko eguna Kaxkoko bizilagunek.



Omendua eta alkate berria, laguntzaileak ondoan dituztela.

MADALENA JAIK

Bi eguneko festa aurten, Lizeaga auzoan

Larunbat eta igande honetan Madalena jaiak dituzte Lizeagan. Balkoiak apaintzeko deia egin diote bizilagun guztiei.

DATORREN larunbat eta igandean jai giroan izango dira Lizeagako auzotarrak, Madalena jaiak ospatuko baitituzte. Larunbat arratsaldean hasi eta igandean egun guztiko festa izango dute. Nobedadeen artean ditugu sagardo-kata, eta balkoi lehiaketa.

Balkoi lehiaketa, asteburu guztian

Auzoa dotore-dotore izateko asmoarekin, balkoi lehiaketa antolatu dute aurten, eta asteburu guztian balkoia dotoreena duenari saria emango diote.

Jana eta edana ez dira faltako Lizeagan. Larunbatean sagardo-kata eta sagardo probaketa dituzte. Koadrilen afaria ere ostiralean da (balkoitzak berea eraman behar du). Igandeko bazkari-txartelak salgai daude, ostegun arte, 10 euroan, Aitan-Etxe, Pacheco eta Lizeagan. II

UZTAILAK 20, LARUNBATA

18:03 Txupinazoa.

18:35 Tortilla txapelketan parte hartzeko azken ordua. Edozein tortila eraman liteke, eta 10 lehenengoen saria dute.

18:45 Sagardo kata.

19:12 Sagardo probaketa: Itxasburu, Larre-Gain, Elutxeta, Elorrabi, Alberro eta Iparragirre.

21:30 Koadrilen afaria.

22:30 Musika.

UZTAILAK 21, IGANDEA

10:04 Txokolatada, umeentzako jolasak eta moztorro-lehiaketa.

12:06 Buruhaundiak eta Bosko Anitz txaranga.

12:57 Herri poteoa Bosko Anitz txarangarekin.

14:30 Herri bazkaria.

16:00 Toka eta bote txapelketak eta ondoren sari-banaketak.

17:00 Modesto Ordoki: Gizon Orkesta.

20:30 Jai bukaera.

EDOZEIN KLASEKO LURRAK JARTZEN DITUGU

PAPER PINTAUETAN 10% DTO

Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe

PVC MOKETA LAMINATUA PARKETA

EROSKETAK ETXERA BIDALTZEN DIZKIZUEGU


Laminatua AC4 Hidrofugoa kolokatua eta guzti.

26,90€/m²

PROKOLOR ZENTRUA
MARGOAK
Landaribar, s.l.

astelehenetik ostiralera
7:30 - 13:00 / 15:15 - 19:00
Larunbatetan
9:00 - 13:00

Procolor Landaribar
943 552131
KARDABERAZ 45, HERNANI



mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

Allianz III
ASEGURUAK

bititza -
istripuak -
ibilgailuak -
etxeak -
komertzioak -
enpresak -
ardura zibila -
finantz aseguruak -
inbertsioak -

agustin ezponda irizar
agentzia

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

☎ TELEFONAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622
 ● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
 + **FARMAZIAK** ● **Eguzte:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● **Gauz:** **Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

EGURALDIA
GAUR Goiza eguzkitsua eta lasaia izango dugu gaur, eta arratsaldean euri eta trumoi arriskua. Iparrak joko du egun guztian, baina ahul. Min.17° / Max.26°
BIHAR Eguraldi oso tankerakoa bihar ere. Eguzkia nagusi, laino gutxi eta oso goian, eta arratsalde partean euri arriskua. Trumoiak ere jo dezake. Min.17° / Max.27° (euskaletan)



Mendi lasterketetan dabilzan euskaldun onentsuenak, Ibai Mendin izan ziren larunbatean.

Euskal Selekzioa goi goian, Ibai Mendiko oinetakoekin

Euskal Seleksioko kideek aurtengo asmoak azaldu zituzten larunbatean.

MENDI lasterketak modan jartzen ari diren honetan, Hernaniko denda batek jantzen dizkie oinetakoak euskaldunik azkarrenei: Ibai Mendi dendak. Hain justu, Euskal Seleksioko 10 kide Hernanin izan ziren larunbatean, eta jendearen galderei erantzun zien, besteak beste. Jokin Lizaga urnietarra falta bazen

ere, hor ziren: Aitziber Ibarbia, Nerea Amilibia, Hassan Atichao, Oier Ariznabarreta, Iban Otamendi, Fernando Etxegarai, Leire Agirrezabala, Elena Calvillo, Aritz Ejea eta Imanol Goñi.

Goi goian dabil Euskal Selekzioa, Eneko Allende selekzionatzaileak azaldu zuen gisan, «Espainiako Txapelke-

tan, mutiletan lehenengo taldea izan gara eta nesketan bigarren. Munduko Kopan lehenengo hamarretan sartu nahi genuke taldekoren bat, eta horretarako 5-6 egun ez entrenatzen dugu astean».

Ibai Mendiko oinetakoekin ere lagunduko dute goi maila horretan ibiltzen, inongo zalantzarik gabe. ||

ESKU PELOTA - BURUNTZALDEAKO III. TXAPELKETA

Lau partidu gaur, kiroldegian

Arratsaldeko 17:00etatik aurrera jokatuko dira partiduak, Hernanin.

PIXKANAKA bakantzen ari da taldea, eta onentsuenak aurrera dijoaz Buruntzaldeko III. Txapelketan. Infantil mai-

lako lau partidu jokatuko dira gaur, 17:00etatik aurrera, Hernaniko kiroldegian: Gari-koitz Arizmendi-Ekaintz Elor-

za; Alain Agirre-Onditz Re-kondo; Oihan Salaberria-Xabier Salaberria; eta Ekaintz Insausti-Xuban Iturrioz. ||

Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefona. ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Etxebizitzak

Espainiako Estatuak bereizgarri bat badu: pisu partikular asko izatea, eta alkilerreko gutxi.

Bataz beste, alkilerreko etxebizitzak %17 inguru dira, Europar Batasunean %30etik gora direnean. Horregatik zalantzan jarri beharko genu-

ke, Hernaniko Udalaren programa berria, 156 etxebizitza egitekoa, eta horien %80 libreak. Berez, guztiz beste era batera egin beharko litzateke; alegia, berriz erabiltzeko moduan jarri beharko litzateke Hernanin hutsik dauden 1.000 etxebizitzatik gora, Alkiler Soziala martxan jarrita. Gainera, horietatik zati

bat bideratu beharko litzateke beren etxeetatik kaleratzen dituzten familientzat, epe motz edo luzean. Horretarako falta den bakarra da, borondatea eta ausardia politikoa, baina dudarik ez herri-tarren onurarako izango litzatekeela.

Joan Sánchez Bolet

(*Erredakzioan euskeratua)

◆ SASKIBALDIA

Aukera ederra gaur, saskibaloian ikasi eta gozatzeko, 1998-2001 tartean jaiotakoentzat

Saskibaloian probatu nahi duten gaztetxoek gaur daukate aukera paregabea Hernaniko kiroldegian, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara. Saskibaloia jardunaldiak antolatuta dituzte, eta 1998-2001 urteetan jaiotakoei zuzendu diete. Hurrengo asteazkenean ere izango da aukera. ||

◆ BANAIZ BAGARA

Ordubete oinez, eta euskeraz

Banaiz Bagara elkarte urte guztian ari da etorkinei euskeraz erakusten eta udaran ere aukera jarri du, horretarako. Larunbatean ordubete bi ibilaldi izango dira, goizez eta arratsalde: goizeko 10:30etan, Larramendi 11tik abiatuta (AEK paretik); eta arratsaldeko 17:00etan Izpizua 21etik (Txema tabernatik). ||

◆ SAN JOAN KONPARTSA

Asanblada bihar, San Joanak baloratu eta Euskal Jaiak antolatzeko

San Joan Konpartsak asanblada egingo du bihar, 19:00etan, Udaltxeko Areto Nagusian. Bi gai dituzte: San Joanetako balorazioa eta Euskal Jaiak. 2014ko San Joanei buruz ere hitz egingo dute. Eskatu dute arropa bueltatzeko duenak ostegunean eramateko. ||

◆ GAZTE ASANBLADA

Asanblada gaur, Biteri kultur etxean

Gazte Asanbladak dei egin die Hernaniko gazte guztiari, gaurko Asanbladara azaltzeko, 20:00etan, Biterin. ||

◆ GOIZ EGUZKI

Plazak badaude, Calpe-ra joateko

Goiz Eguzki bidaia antolatu du Calpera (Alicante), irailaren 23tik 29ra. Oraindik badaude plazak bidaia horretarako, eta izenematea abuztua baino lehen egin behar da, Goiz Eguzki bertan, edo telefono honetara deituta: 669 269 420. ||

◆ Abuztuan itxita

Goiz Eguzki jubilatu etxea itxi egingo dute abuztuan, urteroko oporraldia hartzeko. Instalazio eta zerbitzu guztiak geratuko dira. ||

◆ ASTIGARRAGA

Bertso afaria Ipintzan, euskal presoei Gara edo Berriako harpidetza ordaintzeko

Igor Elortza eta Unai Agirre bertsoari kantatuko dute bihar, 20:30etan Astigarragako Ipintza sagardotegian. Bertso afaria izango da, 20:30etatik aurrera, eta helburua da, Astigarragako euskal presoei Gara edo Berria egunkarietako harpidetza ordaintzen laguntzea. Afariak 25 euro balio ditu (12 afaria eta 13 laguntza), eta Astigarragako Herrirak eta Ipintzak antolatzen dute. Txartelak, Astigarragako Zipotza eta Ikatza tabernetan. ||

◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

TXOLLOA! 120.000€, Víctor Hugo kalean. 2 gelatoko pisua, igogailua, orain dela 10 urte eraberritua. Deitu: 699 450 815

Kataluniako neska bat pisu bila dabil konpartitzeko, ikasketa kurtsuan zehar. Deitu: 622 699 392

Sukaldari bila gabiltza Hernaniko taberna batean, asteburuetan lan egiteko. Deitu: 688 647 582

Akordeioa salgai, Zero Sette markakoa. Deitu: 686 679 075

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... **Seriotasuna**. Deitu: 616 886 660.

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)